

Jon Jimenez Martinez

Arantzazutik Erriberriraino eta bueltan, askatasuna ipar

Desesperantzak jotako belaunaldi batean munduratu zen Joxe Azurmendi. Galera anitzen kontzientzia hartze garaia izan zen hura: pentsamendu eta iritzi askatasun eza, deserria, indibiduo zein komunitate gisa bizirauteko beharrezko egitura material zein immaterialen gabezia... Lan baldintza kaskarrek hil zioten aita, eta aitzinetik frankismoak galdua zion euskara, harik eta «pobreen unibertsitatea» deitua izan den frantziskotarren ordenako Arantzazuko santutegian bere burua berreuskaldundu zuen arte. Izan ere, fede ultrakatoliko espainol itogarria albo batera utzi nahian zebilen zenbait gazte erorekin egin zuen topo han, euskara batuaren sorleku eta euskal kulturaren berpizkundearen hazi. Gogoz kontra, baina diziiplina bat ere jaso zuten han, gerora militantzia politiko-kulturalean borroka grina antolatua bihurtu zutena. Irakurri, bilatu, idatzi, ikasi eta irakasteko ahalmen galdu horren eta egungo berehalakotasun eta antzutasunaren artean bada aldea gero.

Arantzazuko izpiritu hari aitorturik diogun eskertza zor diogu ere Joxeren bizitzan ezezagunagoa baina berdin erabakigarria izan zen Erriberriko egonaldiari. Han ere aurkitu zion frankismoaren hertsitasunari zirrikitua, Nafarroa erdialdeko baratze eta lore txiki arrosaz beteriko almendroetan ere Euskal Herriko paisaia bat ikusten zuenean edo frantziskotarren komentuko liburutegira isilean sartu eta Julio Altadill eta, batik bat, Arturo Kanpion nafar foruzaleen obrei esker abertzaletu zenean. Nafarroak «gure utopia, gure mitoa» izan behar duela defendatzeraino. Hala, haren pentsamenduaren zehar-lerroek gazte-gaztetako esperientzian dute aingura. Nazioari buruzko haren ikuspegia Arantzazu eta Erriberri artean sustraitzen da, eta euskalduntasunaren funts bezala agertzen zaigu bi aurpegi dituen txanpona: batetik, hizkuntza, gramatika bat baino gehiago, mundua antzemateko modu gisara ulertzen duena; bertetik, historia, zentzu zabalenean ulerturik ere (kultura, usadioak, legeak...). Euskara eta nafar erre-

suma euskal komunitatearen ardatz. Alegia, Erriberririk gabe ez da Arantzazurik, eta alderantziz.

Hortaz, aipatu galerei irtenbide berri eta erabatekoa baina, aldi berean, eta Cascanteko euskal herritarrari aitortu eran, mailakakoa, borondatezkoa eta erlatiboa eskainiko dio. Joxeren obra unean uneko Euskal Herriko eztabaidei erantzuteko idatzia izan zen. Baina puzzle horretako puskaila guziak txirikordaturik, ikuspegi politikoa –nazioa–, etika bat –erlatiboa–, estetika bat, historia bat eta, finean, antropologia oso bat, mundu ikuskera bat, azaltzen zaizkigu. Gizaberea, komunitatea eta natura lotuko dituen. Ez da harritzekoa Joxek euskarari, Nafarroari eta haren historiari aitortu zien pisu politiko estrategikoa eta, era berean, Errenazimentuarekiko zuen lilura intelektuala. Izan ere, Errenazimentuaren etena izanen zen Modernitatean aurkitu du bortz mende geroago sufrutuko dituen min eta gabezien erroa. XV. mendeko prozesu homogeneizatzaileak ekarriko zuen Nafarroako Erresumaren konkista, zeinak, ondorio politiko ezagunez gain, europar loraldi intelektualetik bazterrean utziko baitzuen Euskal Herria. Razionalismoari bide eman zion biraketa hura baino lehen, euskara beزالako herri-hizkuntzetan zabaltzen hasia zen kultura berri hark Jainkoa alboratu eta gizakiarengan jarri zuen esperantza, haren gorputzean, sormenean eta askatasunean. «Izaki bizidunen edozein naturatan murgil daitekeen» Pico della Mirandola gizaki-kameleoia da horren adibide. Iturri askatzaile hartatik edanen du gerora Joxek, kameleoia gizaberetxo bihurtuz. Originaltasun osoz, kultura/natura dikotomia gogaikarria alboratuz, izaera askea duen animalia huts bataiatuko du gizakia. Arantzazutik Erriberrira doan bidearen mapa, harentzat baliopertsonala duena baina unibertsalki baliagarria dena, duela bortz mendeko testuinguru politikoan eta formulazio filosofikoetan deskubritu zuen, askatasuna ipar.